

ZER DA DESKRIBAPENA?

Deskribapenak gauza bat edo pertsona bat zer den eta nolakoa den azaltzeko balio du.

DESKRIBAPENAREN ATALAK

Pertsona baten deskribapenak 3 atal ditu:

1. Aurkezpena

2. Kanpoko itxura

3. Izaera



1. Irakurri deskribapena eta lotu atal bakoitza dagokion paragrafoarekin.



TXANO GORRITXO

☐

"Txano Gorritxo eta otsoa" ipuineko pertsonaia nagusia da.

☐

Gorputzez, txikia da, baina polita eta liraina. Ile luzea du, horia eta bi txirikordatan bildua eramaten du. Aurpegi biribila du. Begiak urdin-urdinak eta handiak dira. Sudur motza du eta masailak gorriak ditu.

☐

Izaeraz, ausarta eta alaia da, eta ez da erraz izutzen. Zintzoa batzuetan, bihurria besteetan, baina jatorra orokorrean.

Izaera

Kanpoko itxura

Aurkezpena

2. Ordenatu deskribapen hau.

BART SIMPSON

☐

Bart-ek buru handia eta karratua du. Bere begiak biribil-biribilak eta oso handiak dira, baina bere belarriak txiki-txikiak dira. Bart-ek sudur txikia eta aho oso handia du. Bere besoak eta hankak laburrak dira. Gorputza ez da oso handia. Azalaren kolorea horia da.

☐

Bart mutil bihurria eta lotsagabea da. Ez zaio eskola gustatzen, baina patinetea asko gustatzen zaio.

☐

Bart Simpson Springfield-ekoa da eta 10 urteko mutila da.



1. AURKEZPENA

Aurkezpenean, pertsonaren ezaugarri nagusiak aipatu behar dira:

- Nor den
- Non bizi den
- Zer egiten duen

Adibidez,



Hau Porrotx da eta pailasoa da.



Hau Rafa Nadal da. Mallorkan bizi da eta tenis jokalaria da.

3. Idatzi pertsona hauen aurkezpena.






